



**Nafarroako Gobernua**  
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

# Zuzenketarako koaderno

2  
0  
1  
4  
/  
1  
5

**BANAKAKO EBALUAZIOA**

**LEHEN HEZKUNTZAKO 3. MAILA**

**HIZKUNTZA GAITASUNA**

EKOIZPEN IDATZIA

Izen-deiturak: .....

Ikastetxea: .....

Taldea: .....

Herria: .....

Data: .....

## Idazmena zuzentzeko irizpideak

Lehenik, lana zuzentzen denean puntuazioak ematen dira alderdi hauetan:

- Aurkezpena eta ortografia
- Istorioaren koherentzia
- Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Alderdi bakoitzari 1etik 4rako puntuazioa emanen zaio, ondoren adierazten diren irizpideen arabera:

### Lehen Hezkuntzako 3. maila

	1. puntuazioa	2. puntuazioa	3. puntuazioa	4. puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	Oso desegokia 3. ikasmilarrako. Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografikoak asko dira.	1. eta 3. puntuazioen arteko maila du. 3. mailaren eskakizunetako hiru betetzen ditu.	Kurtso honetarako maila egokia du, eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Garbi idatzita dago (ez da urraturik...)</li> <li>• Letra argia eta erregularra da.</li> <li>• Marjinak ongi zehazturik daude.</li> <li>• Ortografia: 4-7 akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s idazterakoan egindako 5 akatseko 1 kontatzen da), testu laburrak direnean (10-15 lerro). 8-10 akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.</li> </ul>	Bikaintasuna erakusten du, 3. ikasturtean eskaturiko mailaren arabera. 3. puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu.
Istorioaren koherentzia	Koherentziarik eta egiturarik gabeko istorioa kontatu du. Edukiari dagokionez, justifikatu gabeko jauziak daude.	3. puntuazioko eskakizunetako lau betetzen ditu.	Eskakizun hauetatik, 5-6 bete ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Egitura argia: aurkezpena, korapiloa eta amaiera.</li> <li>• Hiru paragrafo ditu, gutxienez.</li> <li>• Bilakaera tematikoa: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman; istorioa erraz segitzen da.</li> <li>• Perpausak ideia osoak adierazten dituzte.</li> <li>• Perpaus batzuk besteekin ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa).</li> <li>• Pertsonaiak eta haien ekintzak ongi zehazturik daude (badaki zeinek zer egiten duen).</li> </ul>	3. puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkiak ezaugarri hauek ditu: sormena, argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (orduan; geroago; hala ere, etab.; ez da behar ez den errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa).
Zuzentasun gramatikala	Testua ez da egituratu perpaus argiro zehaztu eta bereizietan. Ez du kode idatzia ahozko kodetik bereizi: hitz egiten duen bezala idatzi du. Akats gramatikak asko egin ditu.	3. puntuazioko eskakizunetako hiruzpalau bete ditu.	Eskakizun hauetatik, 5-6 bete ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sintaxi aldetik ongi eraturiko perpausekin egituratutako idazkia.</li> <li>• Aditz-denborak zuzen erabili ditu.</li> <li>• Ez du komunztadura akatsik (ergatiboa, plurala, deklinabideak...)</li> <li>• Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez.</li> <li>• Argi eta garbi bazterrean utzi du lagunarteko eta ahozko hizkuntza.</li> <li>• Pertsonai eta ekintzei buruzko informazio interesgarria ematen duten adjektiboak eta adberbioak erabili ditu.</li> </ul>	3. puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazkian ez da akats gramatikarik, hiztegia aberatsa da eta sintaxia menderatzen dela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testuak oso ongi idatzita daude, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 3. mailan gaudela.

Oharra: "0" puntuazioa soilik eman da ikasleak ez badu lana egin.

Eranskin honetan aurrez azaldutako irizpideen arabera zuzendutako zenbait testu jaso dira. Idazlan bakoitzari eman zaizkion puntuazioak ikusi daitezke, eta baita zuzenketen deskripzioak ere, zehatz-mehatz. Ikus daitekeenez, ez da prozedura mekanikoa. Zuzentzaileak kasuz kasu baloratu behar du adierazle bakoitzaren egoera; askotan argi dago, baina beste batzuetan ez da argi hautematen baldintza hori betetzen duen ala ez, eta puntuazioak ematerakoan nolabaiteko malgutasunez baloratu behar da.

# 1. adibidea

!! Elurran galduta!!!

Bazen behin Jaena, Pepe eta Ina, elurara joan zirela  
Kotxean. Kotxean segoa: drujula, palar, soka eta pisa.

5 tok eta edian nirela segoa-er drujula ikusten ez, eta an  
en Inak, bat baten gorpukatu ziren rauhaitz batekin. Geroa  
elur-ean joan ziren eta Pepe eta Ina - non gaudu? Baina  
PUF, PUF, PUF... -! Zer da hori? ezan zuen Jaena eta  
zen... YETI bat eta Koztiko ura diru! oso aska oso  
askar! -Ina.

Baina Ko ze ze Yekia zen pertson bat etorri zela laguntza  
eta etxera joan ziren eta au zen!! Elurran galduta!!!

Galdera		1, 2, 3 edo 4
1	Aurkezpena eta ortografia	1
2	Koherentzia	1
3	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	1

### **Aurkezpena eta ortografia**

- Itxura garbia. *Garbi idatzita dago.*
- Letra argia eta erregularra. *Letra argia, erregularra eta uniforme da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Marjinak neurri batean errespetatzen ditu, baina eskuineko marjina ez da uniforme.*
- Ortografia. *Akats ortografiko ugari ditu, ortografia naturala barne.*

Alderdi honen balorazioa: *Lau baldintzetatik bizpahiru betetzen ditu. Beraz, 1-2 puntuko puntuazioa dagokio.*

### **Istorioaren koherentzia**

- Egitura. *Egitura du, baina oinarrizkoa da eta sinpleegia hirugarren mailarako. Amaiera oso pobrea da.*
- Paragrafo kopurua. *Testua paragrafo desberdinetan egituratuta dago.*
- Bilakaera tematikoa. *Istoria erraz segitzen da, baina oso sinplea da hirugarren mailarako.*
- Perpausak ideia osoak adierazten dituzte. *Ideia osoak adierazten dituzte.*
- Lotutako perpausak (lokailuak, puntuazioa...). *Lokailuen erabilera oso pobrea da eta puntuazioan akatsak daude.*
- Ongi zehaztutako pertsonaiak eta ekintzak. *Hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.*

Alderdi honen balorazioa: *Ikus daitekeenez, sei baldintzetatik hiru betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa puntu 1 da.*

### **Zuzentasun gramatikala**

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Perpausak ez daude ongi eratuta.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Aditz-denborak nahiko ongi erabili ditu.*
- Komunztadura. *Komunztadura akatsak daude.*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Baldintza hau ez du bete.*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Ez du kode idatzia ahozko kodetik bereizi: hitz egiten duen bezala idatzi du.*
- Adjektibo eta adberbioen erabilera. *Lexikoa ez da aberatsa.*

Alderdi honen balorazioa: *Sei baldintzetatik soilik bat bete du. Beraz, dagokion puntuazioa puntu 1 da.*

## 2. adibidea

### Abentura elurran

Bazen bein familia bat ume bat zeukaten ni umea  
nair. eta nire abentura kontatu nari diruet bueno  
ba hau da nire abentura: elurran nengoen, nire familia  
rekin baina bopatean, ni desagertu egin nuen, galdu-  
rik nengoen zer egingo nuen. lagundu lagundu-  
eraten nuen.

Ni beldurtuta nengoen eta haotz finis finis bat entzun  
nuen eraten zidan: "er beldurtu lagunduzo ni lagunduko  
dirut". Dakizue nor zen? pertsona txiki-txiki bat  
belarri andiak zeukan nirekin bat nire belarriak  
berala baina txikiagoak...!!! Ipota zen!!! nire  
ametzeta berala. Bera niri lagundu nari zuen.

ia-ia gaua egiten zen, eta ez genuen ezer ikusten  
baina poltrikoan ~~te~~ erkuragia zeukan eta  
geurk paratzen genuen lekutik dena argitzen  
zen gero lotan geratu ginen eta arkenear...  
!!! Nire familia!!!

Galdera		1, 2, 3 edo 4
1	Aurkezpena eta ortografia	2
2	Koherentzia	2
3	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	2

### **Aurkezpena eta ortografia**

- Itxura garbia. *Itxura ona du, garbi idatzita dago.*
- Letra argia eta erregularra. *Letra argia, erregularra eta uniforme da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Oro har, marjinak errespetatu ditu.*
- Ortografia. *Akats ortografiko asko daude, testuaren luzera kontuan izanik.*

Alderdi honen balorazioa: *Lau baldintzetatik hiru betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.*

### **Istorioaren koherentzia**

- Egitura. *Argi ikusten da narrazioaren berezko egitura: aurkezpena, korapiloa eta amaiera.*
- Paragrafo kopurua. *Testua paragrafotan egituratuta dago.*
- Bilakaera tematikoa. *Bilakaera tematikoa hautematen da; erraz jarraitzen da mezua.*
- Perpausek ideia osoak adierazten dituzte. *Ez dago ideien eta perpausen arteko elkarrekikotasunik, gehienbat puntuazioa behar bezala ez erabiltzeagatik.*
- Lotutako perpausak (lokailuak, puntuazioa...). *Lokailuen erabilera pobrea da eta puntuazioan akats asko daude.*
- Ongi zehaztutako pertsonaiak eta ekintzak. *Argi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.*

Alderdi honen balorazioa: *Ikus daitekeenez, sei baldintzetatik lau betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.*

### **Zuzentasun gramatikala**

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Perpausak ez daude ongi eratuta.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Behin istorioan sartuz gero, nahiko ongi erabili ditu aditz-denborak.*
- Komuntadura. *Ergatiboaren erabileran eta deklinabidean akatsak daude.*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Mendeko perpaus bakarra sartu du eta ez era zuzenean.*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Ez du kode idatzia ahozko kodetik bereizi: hitz egiten duen bezala idatzi du.*
- Adjektibo eta adberbioen erabilera. *Adjektiboen eta adberbioen erabilerari dagokionez, testua egokia da.*

Alderdi honen balorazioa: *Sei baldintzetatik soilik hiru betetzen ditu. Beraz, 2 puntuko puntuazioa dagokio.*



### 3. adibidea

## Eluso artean galduta

Urte asko para ta gero, nire aitakeran zuen elurretara joan behar girela. Nire amakeran zuen autoa joan behar <sup>gara</sup>!! Ordu artean ezan zuen aitari: lasai ni gidatuko dut. Baina ni pentratzen nengoen ordu zaila zela elurretara gidatzen, luero artikeran joan giren.

Ordoren, heldu giren elurretara eta aitak ordu kantzata zegoen autoa gidatu zuelako 5 ordu tirada batean. Ni zubaitz bateri begira nengoen eta momentu horretan... galdu egin nintzen! Bai arazoa! Eta pentratzen geratu nintzen pentratu nuen non egon zirela gurusoak batera ere ordu kiestatutak geratuko ziren. Negarrez lasai nintzen denberrante elurretara parrin bat etorri zen eta ezan zidan: zer geratzen zaizun? Eta ni erantzun nion nire gurusoak galdu nituela ezan nion eta bera ezan zidan: ez ezin geratzen, luero ni joan behar naiz. Eta momentu horretan gurusoak etorri ziren.

Artikeran, etxera bueltatu giren eta nire urtebetetze festa egin genuen. Egia bada sinetsi, baina egia ez bada ez sinetsi.

Galdera		1, 2, 3 edo 4
1	Aurkezpena eta ortografia	2
2	Koherentzia	3
3	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	2



### **Aurkezpena eta ortografia**

- Itxura garbia. *Itxura ona du, garbi idatzita dago.*
- Letra argia eta erregularra. *Letra argia, erregularra eta uniforme da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Eskuineko marjina ez da uniforme.*
- Ortografia. *8-10 ortografia akats baino gutxiago daude.*

Alderdi honen balorazioa: *Lau baldintzetatik hiru betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.*

### **Istorioaren koherentzia**

- Egitura. *Argi ikusten da narrazioaren berezko egitura: aurkezpena, korapiloa eta amaiera.*
- Paragrafo kopurua. *Testua paragrafotan egituratuta dago.*
- Bilakaera tematikoa. *Bilakaera tematikoa hautematen da; erraz jarraitzen da mezua.*
- Perpausek ideia osoak adierazten dituzte. *Idea osoak adierazten dituzte.*
- Lotutako perpausak (lokailuak, puntuazioa...). *Lokailuen erabilera egokia da, baina badu arazoren bat puntuazioarekin.*
- Ongi zehaztutako pertsonaiak eta ekintzak. *Argi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.*

Alderdi honen balorazioa: *Ikus daitekeenez, sei baldintzetatik bospasei betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.*

### **Zuzentasun gramatikala**

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Sintaxiaren ikuspuntutik akatsak daude.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Ongi erabili ditu aditz-denborak, nahiz eta "behar"-en erabileran nahastu.*
- Komuntadura. *Ergatiboaren erabileran akatsak daude.*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Mendeko perpausak sartu ditu.*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Ez du kode idatzia ahozko kodetik bereizi: hitz egiten duen bezala idatzi du.*
- Adjektibo eta adberbioen erabilera. *Adjektiboen eta adberbioen erabilerari dagokionez, testua egokia da.*

Alderdi honen balorazioa: *Sei baldintzetatik hiruzpalau betetzen ditu. Beraz, 2 puntuko puntuazioa dagokio.*

## 4. adibidea

### Elurretan galdurik.

Atzo elurretan nengoen nire familiarekin  
oro ondo paratu nuen burua... Esker nint-  
zen! Baina joran nintzen eguerra hartzea  
eta... Eguerra aurkitu nuen eta nire  
amari eman nion. A! Barkatu Teresa nair.  
8 urteko nekati bat ikarotako dut eta oro  
burregarria nair.

Gero nire aitak eman zidan jolastera  
~~jolaster~~ eta nik kometa bat ekarri nuen  
baina aizeak baxxa eraman zuten askone-  
an suahitz baten ostean aurkitu nuen. Baina  
ez liden. Askok izutu nintzen ~~baina~~ <sup>eta</sup> gero  
nintzen, baina orduan sagarrondo bat ikusi  
nuen. Sagarrak antza oro oro zekaten eta  
orduan jaten hasi nintzen, 1, 2, 3 eta 4 sagar jor-  
nituen.

Gero nire aitaren eta amaren aholku entzun  
nuen eta korriketan jotzen nintzen aingara  
eta orreuden. Eta berarkada erraldoi bat eman  
nien eta nire amarikin jolastera joran  
nintzen eta egia bada sinetsi eta egia ez  
bada ez sinetsi.

**Amaiera**

Galdera		1, 2, 3 edo 4
1	Aurkezpena eta ortografia	3
2	Koherentzia	3
3	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	3

### Aurkezpena eta ortografia

- Itxura garbia. *Itxura ona du, garbia.*
- Letra argia eta erregularra. *Letra garbia, erregularra, irakurterraza.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Oro har, marjinak errespetatu ditu.*
- Ortografia. *Sei akats daude (h-ren erabileran gehienbat)*

Alderdi honen balorazioa: *lau baldintzak betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.*

### Istorioaren koherentzia

- Egitura. *Hautematen da narrazioaren berezko egitura: aurkezpena, korapiloa eta amaiera.*
- Paragrafo kopurua. *Testua hiru paragrafotan egituratuta dago.*
- Bilakaera tematikoa. *Bilakaera tematikoa hautematen da. Erraz jarraitzen da mezua, nahiz eta hasierako paragrafoan jauzi bat egin duen.*
- Perpausek ideia osoak adierazten dituzte. *Idea osoak adierazten dituzte.*
- Lotutako perpausak (lokailuak, puntuazioa...). *Lokailuen erabilera egokia da, baina badu arazoren bat puntuaren eta komaren erabilerarekin.*
- Ongi zehaztutako pertsonaiak eta ekintzak. *Argi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.*

Alderdi honen balorazioa: *sei baldintzetatik bost betetzen dituela esan dezakegu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.*

### Zuzentasun gramatikala

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Orokorrean perpausen egitura zuzena da.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Ongi erabili ditu aditzak.*
- Komuntadura. *Ez dago komuntadura akatsik.*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Bi mendeko perpaus sartu ditu, baina baten erabilera ez da zuzena.*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Erregistroa aproposa da.*
- Adjektibo eta adberbioen erabilera. *Lexikoa aberatsa da adjektiboen eta adberbioen erabilerari dagokionez.*

Alderdi honen balorazioa: *sei baldintzetarik bost betetzen ditu. Beraz, 3 puntuko puntuazioa dagokio.*

## 5. adibidea

### Elurra galduta

Bazen behin nerka bat Maria deitzen zena  
Maria baxua zen eta ilka marroia  
seukan, Sute sutes eta gehien gurtoka  
zuen elurra joatea zen. Eguz lutean  
bere aitak eta bere anak esan zuten, Sorpre-  
natek bat daukagu sutesat, etozi nait  
duru elurra? Maria oso porik jarri  
zen eta zola ez, baietz esan zuen

Maria sartzerakoa katean abesten hari zen  
hain alai ~~egokita~~ Elurra elter <sup>regener...</sup> Maria  
jolastera <sup>joan</sup> zen eta aitak eta anak  
hamarketakoan <sup>joan</sup> zuten bitartean, Maria  
erkiak hartuz gero erkiatzen joan zen.  
Bazatean hain arkar joaten zener... kataplalt!!  
Maria jarri zen. Ez nekien ezta non  
segoen ezta non zuden bere aita eta ama.

Bazatean begarkin bat ikusi zuen baina  
nilatoka lera ez. Bere aitak eta anak  
Maria bilatu zuten eta Mariak bere aita eta  
ama da bazatean... Topo egin zuten!!! Maria  
oso porik jarri zen baina orain gortoka du elurra.

**Amaiera**

Galdera		1, 2, 3 edo 4
1	Aurkezpena eta ortografia	4
2	Koherentzia	4
3	Zuzentasun gramatikala eta lexikoaren aberastasuna	4

### Aurkezpena eta ortografia

- Itxura garbia. *Itxura ona ematen du, nahiz eta zirriborroren bat egon zuzenketaren ondorioz, hasieratik testua boligrafoz idatzita baitago.*
- Letra argia eta erregularra. *Letra garbia, erregularra eta uniformea da.*
- Ongi zehazturiko marjinak. *Marjinak errespetatzen ditu.*
- Ortografia. *Oso akats gutxi daude.*

Alderdi honen balorazioa: *lau baldintzak aise betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 4 puntu dira.*

### Istorioaren koherentzia

- Egitura. *Argi ikusten da narrazioaren berezko egitura.*
- Paragrafo kopurua. *Testua paragrafotan egituratuta dago eta idatziaren zatien arteko lotura antzematen da.*
- Bilakaera tematikoa. *Bilakaera tematikoa hautematen da. Eskatutako lanari erantzun dio (xede eta luzera).*
- Perpausak ideia osoak adierazten dituzte. *Idea osoak adierazten dituzte, gainera adin honentzako oso perpaus landuak dira.*
- Lotutako perpausak (lokailuak...). *Modu egokian erabiltzen ditu lokailuak, baita puntuazioa ere, nahiz eta marra handia ez erabili elkarrizketan.*
- Ongi zehaztutako pertsonaiak eta ekintzak. *Argi eta garbi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.*

Alderdi honen balorazioa: *aise betetzen ditu sei baldintzak. Beraz, dagokion puntuazioa 4 puntu dira.*

### Zuzentasun gramatikala

- Perpaus zuzenak, sintaxiaren ikuspuntutik. *Oro har, perpausen egitura zuzena eta aberatsa da.*
- Aditz-denborak zuzen erabiltzea. *Ongi erabiltzen ditu aditzak.*
- Komuntzadura. *Ez dago komuntzadura akatsik.*
- Mendeko bi perpaus, gutxienez. *Mendeko perpausak sartu ditu.*
- Ez erabiltzea lagunarteko/ahozko hizkera. *Idatzizko erregistroa egokia da.*
- Adjektibo eta adberbioen erabilera. *Adjektiboen eta adberbioen erabilerari dagokionez, testua egokia da.*

Alderdi honen balorazioa: *sei baldintzak betetzen ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 4 puntu dira.*